

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERREZELAK ETA ESTOREAK EGITEA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF1038		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Errezelak eta dekorazio-osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Errezelak eta estoreak egiteko teknikak	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ehun-produktuak egiteko erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak (zeharkakoa)		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator, partzialki, UC0178_1 ERREZEL ETA ESTOREEN MOZKETA, PRESTAKETA, MIHIZTADURA ETA AKABERA EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB3, LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin, errezelak eta estoreak egiteko mozte-, mihiztatze- eta akabera-eragiketen espezifikotasunei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Produkzio-agindu batean jasotako eskakizunetan edo bezeroaren eskaera-dokumentu batean oinarrituz, errezelak eta estoreak egiteko prozesuaren eragiketa-segida ezartzea.

BI1.1 Hainbat errezel- eta estore-modeloren ezaugarriak erlazionatzea haiek eskegitzeko erabil daitekeen espazio fisikoarekin eta erabilitako produkzio-orriekin.

EI1.2 Fabrikatu beharreko produktuak instalatzeko erabiliko den azalera edo tarte neurtzea, eta osotasunaren krokisa egitea, behar diren elementu guztiak jasoz.

BI1.3 Eskaera-dokumentuak betetzea, errezel eta estoreak egiteko behar diren ezaugarri guztiak jasoz, baita dagozkien produkzio-aginduak ere.

EI1.4 Errezela edo estorea egiteko behar den lehengai-kantitatea kalkulatzeko, ondorioztatzeko zabalerak eta luzerak, josteko marjinak eta nasaitasunak.

EI1.5 Errezela edo estorea egiteko behar den denbora kalkulatzeko.

EI1.6 Lan-agindu baten edo bezeroaren eskaera-dokumentu baten kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoan oinarrituz, eragiketa-segida eraginkorrena identifikatzea.
- Prozesuan parte hartzen duten makinak identifikatzea, eta, hala badagokio, baita behar diren erreminta, lanabes eta osagarriak ere.
- Azken produktua instalatuko den espazio fisikoa neurtzea, erreminta egokiarekin, behar diren segurtasun-neurriak betetz.
- Eskaera-dokumentu bat egitea, errezela edo estorea egiteko lagungarriak izango diren oharrek eginez.
- Errezela edo estorea egiteko behar diren lehengaiak (ehun-zatiak, forruak, apaingarriak) eta denbora kalkulatzeko, metodo eta teknika operatibo identifikatuak erabiliz.

A2: Errezelak eta estoreak egitea, mozte-, jantzigintza- eta akabera-teknikak erabiliz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.

EI2.1 Errezelak eta estoreak egiteko erabiltzen diren hainbat material prestatu eta mozteko prozedurak deskribatzea, parte hartzen duten parametroak kontrolatuz, desbideratzeak saihesteko.

EI2.2 Oihalak zabaltea, errezelak eta estoreak egiteko prozesurako egokiena den prozesua erabiliz eta patroiak marrazteko kondizio onenak berrikusiz: tolesik gabe, lerrokatuta, beharrezko tentsioarekin, hariaren noranzko egokiarekin eta norabide egokiarekin.

EI2.3 Patroiak materialaren gainean marraztea, hainbat prozeduraren bidez, eta lotura-puntuak, oihal-bazterren akaberak eta apaingarri eta hornien kokapenak adieraztea, osteko mihiztatze-lana errazteko.

EI2.4 Mozteko eragiketak trebetasunez egitea, modu ordenatuan, txukuntasunez, zehaztasunez eta segurtasunez, errezelak eta estoreak egiteko prozedura eta teknika egokiak aplikatuz.

EI2.5 Mihiztatze-sistemak sailkatzea eta deskribatzea, lotura-motaren, baliabideen eta errezelak eta estoreak egiteko erabiliko diren materialen arabera.

EI2.6 Errezelak eta estoreak mihiztatzeko eragiketak egitea, trebetasunez eta autonomiaz, lotura-mota bakoitzarentzat egokiak diren metodo eta teknikak aplikatuz: oihal-bazter, toles, itxitura, apaingarri eta abarren akabera egitea, eragiketa-segida zehaztuz eta estetika- eta segurtasun-irizpideei jarraikiz.

EI2.7 Tarteko eta amaierako akabera-eragiketak egitea, trebetasunez eta egin beharreko errezel edo estorearen arabera metodoa erabiliz, txukun, gustu onez eta segurtasunez, errezelak eta estoreak egiteko erabili ohi diren prozedura eta tekniken bidez.

EI2.8 Detektatutako anomaliak gutxitzea lisaketaren bidez (erliebeak, dirdirak, soberako hariak, zimurrak, etab.), egindako errezel edo estorearentzat nahi dugun azken formaren arabera.

EI2.9. Azken akabera egokiak egitea, errezel eta estoreei aurreikusitako aurkezpen eta kalitatea emateko.

EI2.10 Errezel edo estore bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren araberrako eragiketa-segida ezagutzea.
- Parte hartzen duten makinak identifikatzea, eta, hala badagokio, baita behar diren erreminta, lanabes eta osagarriak ere.
- Materialak kokatzea edo zabaltzea, mozketa-eragiketak egiteko.
- Moztu beharreko materialaren gainean zatiak markatzeko eragiketak egitea.
- Zatiak profilak deformatu gabe mozteko eragiketak egitea, mozketa-aginduaren argibideei jarraikiz, zulotxoak eta zuloak markatuz, babes-ekipo egokiak erabiliz.
- Mihiztatze-eragiketak egitea, lotura-mota bakoitzarentzat egokiak diren metodo eta teknikak aplikatuz, lan-aginduaren argibideei jarraituz, segurtasun-neurriak betez eta babes-ekipo egokiak erabiliz.
- Tarteko eta amaierako lisatze-eragiketak egitea, segurtasun- eta estetika-irizpideei jarraikiz, mihiztatze-lanak hobetuz eta erraztuz, babes-ekipo egokiak erabiliz.

A3: Errezelak eta/edo estoreak instalatzea dagokien eremu fisikoan, eta instalazioaren funtzionaltasuna eta haren estetika erlazioztatzea.

EI3.1 Errezelak eta estoreak instalatzeko mekanismo-mota ezberdinak sailkatzea.

EI3.2 Fabrikatutako errezel eta/edo estoreentzat egokiak diren mekanismoak muntatzea, eta dagokien funtzio mekanikoa betetzen dutela egiaztatzea.

EI3.3 Instalatu beharreko produktuen mekanismo eta euskarrientzat egokiak diren instalazio-aukerak balioztatzea eta bat hautatzea, haien funtzionaltasuna eta estetika kontuan hartuz.

EI3.4 Errezelak eta/edo estoreak jarriko diren eremu fisikoan euskarriak eta mekanismoak instalatzea.

EI3.5 Errezelak eta estoreak jartzea aurreikusitako eremu fisikoan, aurrez zehaztutako parametro funtzional eta estetikoak betetzen dituztela bermatuz.

EI3.6. Instalazioan sortutako akats edo arazoak detektatzea, eta *in situ* konpontzea.

Edukiak

1. Errezelak eta estoreak egiteko prozedurak.

- o Errezel- eta estore-motak.
- o Ezaugarri nagusiak:
 - Errezel eta estali beharreko eremuaren eta eskegitze-motaren arteko erlazioa.
 - Estore eta estali beharreko eremuaren eta eskegitze-motaren arteko erlazioa.
 - Formak eta estiloak.
- o Materialen aukeraketa.
- o Fabrikazio-prozesu eta -sistemak.
- o Errezel eta estoreen instalazioa.
 - Leihoen eta estali beharreko beste eremu batzuen motak eta ezaugarriak.
 - Tarteen eta azalaren neurketa.
- o Errezelak eta estoreak egiteko behar diren materialak eta denbora kuantifikatzea.

2. Errezelak eta estoreak egitea.

- o Mozte-teknika eta -prozedura espezifikoak errezel eta estoreen fabrikazioan, hainbat material erabilita.
 - Zabaltze-eragiketak.
 - Materialaren gainean patroiak marraztea.
 - Mozte-eragiketak.
- o Errezelak eta estoreak hainbat materialekin egiteko teknika espezifikoak:
 - Jostura zuzen, lerromakur eta formadunak.
 - Ehunen ertzak puntada luzez jostea eta piezak mihiztatzea.
 - Ertzak egitea.
 - Azpildurak egitea.
 - Apaingarriak eta osagarriak txertatzea.
 - Errezelen erremateak: galeriak, zerrendak, girlandak, erorkerak, errezel-euskarriak, ertzak, begiztak eta intsigniak.
 - Estore tolesgarri eta bilgarriak egitea.
 - Ohazeruak egitea.
- o Errezel eta estoreen fabrikazioan lisatzeko eta akaberak egiteko teknikak eta prozedurak:
 - Tarteko akabera egiteko eragiketak.
 - Zatiak konformatzea.
 - Ertzak eta albainu txikiak lisatzea.
 - Eskuzko lisaburdinarekin josturak zabaltzea.
 - Azken akabera egiteko eragiketak.

- Elementu osagarri eta apaingarriak txertatzea: botoiak, zintak, lokarriak, pasamaneriak, etab.
- Azken lisaketa.
- Produktuen kalitatea egiaztatzea. Anomaliak zuzentzea.
- Produktuak entregatzeko prestatzea.

3. Errezel eta estoreen instalazioa.

- Errezelak eta estoreak instalatzeko mekanismoak eta euskarriak.
 - Barrak.
 - Errailak.
 - Galeriak.
 - Tenkagailuak.
- Errezelak eta estoreak egiteko euskarriak finkatzea.
 - Eskuairak.
 - Gidak.
 - Errezel-makilak.
 - Besarkagailuak.
 - Takoak eta torlojuak.
- Errezelak eta estoreak instalatzeko erreminta elektrikoak eta eskuakoak.
 - Zulagailua.
 - Bihurkina.
 - Flexometroa, erregela eta nibela.
 - Metal eta egurrerako zerra.
- Segurtasuna errezelak eta estoreak instalatzeko eragiketetan.
 - Erreminta elektriko eramangarriekin lan egitea.
 - Altueran egiten diren lanak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestakuntza-atal hau egiteko, gainditua izan behar du UF1030 Ehun-produktuen mozketak, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Errezelak eta dekorazio-osagarriak